

Lau haizetararen 5 urteak:

Euskaldunon bilguneetik euskararen mundurantz

Bost urteko bidea

aurten bost urte bete dira Lau Haizetara euskaldunon elkartea gure herrian euskararen normalkuntzako lanean jarduteko asmoz sortu zenetik. Euskararen mundua eta euskaltzaleak norabide berean euskararen alde elkarlanean jartzen hasteko jaio zen Lau Haizetara. Euskararen hizkuntz komunitatea bateratzea dugu abiapuntu eta helmuga.

Esparru sozial eta politiko desberdinetako jendea hurbildu ginen bi batzar haizetara: euskaltzaleak, kultura eta irakaskuntzako jendea, mundu abertzale eta ez abertzaleko jendea... Dena den, guztion buruan asmo bakarra zegoen: Erretereria-Oreteran euskara biziberritzeko ahaleginak egingo zituen dinamika berria eta desberdina sortzea.

Denbora aurrera joan ahala, azpiegitura bat sortzen eta lehen proiektuak gauzatzen hasi ginen: Lau Haizetara aldizkaria, herrian euskararen erabilera aurrerapausoak handitzen ahaleginduko zen euskararen normalizaziorako lantaldea, kulturako lantaldea... Beranduago etorri zen Xenpe-lar Bertso Eskola elkartean sartzera eta bertsolaritzako saila osatzea, bai eta Lau Haize Gazte taldea eta Ttakalo ludoteka sortzea ere.

Bide beretik etorri dira gero kultur asteak, aldizkariaren etengabeko argitarapenak, bertsolaritzako ikastaroak, haur-gaztetxoentzako saioak, Euskara Erabiltzeko Hitzarmena, Oarso Telebistaren hasierako bultzada, Euskararen Udal Orde-nantzari buruzko hausnarketa...

Non dago kokka?

Azken finean, Lau Haizetara euskaldunon elkartea ez da sortu beste elkarte bat gehiago izateko. Eginkizun berariazkoa dugu, euskararen munduko beste talde eta plataformetatik desberdin egiten duena, neurri batean bederen. Euskararen normalkuntza sozialaren aldeko dinamika orokor eta indartsua sortzean datza eginkizun hori, eta bera da euskaldunon elkarlearen norabide nagusia. Hori gabe, bere izatea zalantzan egongo litzateke. Areago oraindik: urte hauetan eginkizun horri nahi bezain ongi ez erantzutea kezka da guretzat.

Zentzu horretan, aurtengo Batzar Nagusian agindutakoari jarraiki, hausnarketa garaia zabaldu

nahi dugu Lau Haizetara elkartean bazkideei zuzenduta, baina baita herriko euskaldun kontzienteenei ere. Hausnarketaren gaia hauxe izango da: **Lau Haizetara euskaldunon elkarleak zer, nola eta norekin eskeini diezaiokeen gure herriko euskararen normalkuntzaren aldeko lanari, gizarle bizitzaren alor desberdinetan hizkuntz dinamika indartsua bultzatzeko?**

Jakina, erantzun hori *guztionean* eman behar dugu. Gure elkarlearentzat erronka nagusiak zeintzuk ziren identifikatu ondoren, lan ildo nagusi batzuk proposatu ziren azken Batzar Nagusian, elkarlearen barruari eta herriari begira:

- Lau Haizetarako lantaldeak hobeto koordinatzea eta indartzea, euskararen munduari hobeto erantzuteko.
- Diru iturriak dibertsifikatzea.
- Lau Haizetara euskaldunon elkarlearen Proiektua eraberritzea, ahalik eta gizarlearen inplikazio maila handienarekin, eta orain baino erakar-garritasun handiagoarekin.
- Elkarlana bultzatzea euskararen munduko erakunde, talde eta elkarleekin nahiz erakunde publikoekin, beren aportazioak beharrezkoak direlakoan eta aurrerapauso koalitatibo eta koantitatiboak emateko aldeko faktoreak daudelakoan.
- Erabilera espazioak irabaztea euskararentzat: kirola eta aisialdia, gehienbat euskaratik datozen haur, gaztetxo eta gazteen esparruari lotuta; euskarako ikasleen esparrua, ikasitakoa non erabili ahalbideratuko duena.

Abian jartzera goaz

Udazkenerako, euskaldungoa erakarri nahi duen **Proiektua** idatziko du Lau Haizetarak. Euskaltzaleei nahiz euskara, kultura eta instituzioen munduko agenteei aurkeztu eta parte hartzera animatu nahi ditugu, bai eta instituzioen munduan eta alderdi politiko guztietan adostasuna aurkitu ere.

Etengabeko komunikazioa bultzatu nahi du Lau Haizetarak euskaltzaleekin, eta hizkuntz normalizazioan ari diren pertsona eta taldeekin: Oarsoalde Garapen Agentzia; Erretereriako Udala, eta



Udaleko Kultura Batzordea eta Euskarako Azpisaila; euskaltegien mundua; Euskal Herrian Euskaraz; irakaskuntzaren mundua; kulturaren mundua... Elkarren berri izan eta egoeraren diagnostiko amankomun batera iritsi beharko da, aurrerago interbentzio puntualak elkarrekin aurrera eramateko.

Oarsoaldea Agentziako Euskara Komisiotik kirolaren esparruan euskararen normalizazio soziala bultzatzeko egingo diren ahaleginekin bat etorriz, **kirol munduko taldeekin euskara erabiltzeko programa** sortu nahi dugu erabilera-hitzarmenen bitartez. Dena den, etorkizunari begira **aisialdiren munduari** begiratu behar diogu, haur eta gaztetxo-en munduan euskararen erabileran garrantzia izango duten espazio nagusietako bat izan baitaiteke.

Euskaratik datorren gazteen mundua hizkuntzaren bizitza indartzeko ezinbestekoa izanik, ikastetxeen munduan euskara taldeen sarea antolatzen ari gara pixkanaka euskararenganako atxikimendua lantzeko. Era berean, gazteen bizitza-esparru desberdinetan euskararen erabilerari eragin nahi dio **Lau Haize Gazte taldea** bere **proiektua** indartzen ari da.

Azken finean, bost urte hauek ez dira alferrik pasatu. Hutsuneak izan dira, bai. Baina esperientzia eta ikuspegi zabalagoa lortzeko baliagarriak izan dira. Euskarak herrian dauzkan erronkak antzemateko ere balio izan dute. Orain horiei begira lanean jardun beharra dago, datozen urteotan euskararen munduan gure lana eskeiniz eta beste indarrak gehituz.